

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

## NOTA DE PRENSA

### **AKTIBATU+ PROGRAMAN PARTE HARTU DUTEN EZKERRALDE, MEATZALDE ETA ENKARTERRIKO 247 IKASLEK BEREN LANAREN AITORPENA JASO DUTE**

Bilbo, 2017ko ekainaren 2a

Ezkerralde, Meatzalde eta Enkarterri eskualdeetako eta Leioa eta Mungiako udalerrietako 19 zentroetako ikasleek parte hartu dute Aktibatu+ programaren bosgarren edizioan. Gaur, 19 zentro horietako 13ko 247 ikaslek jaso dute programan ikasturte honetan beren lanaren aitortpena. Programa Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena da, eta hainbat erakunderen babesa du: Eusko Jaurlaritza, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Metro Bilbao, Eroski taldea, Iberdrola, "La Caixa" gizarte-ekintza eta Petronor. Egin dituzten jardueri esker, ikasleek lortu dute beren zentroetan energiaren kontsumoa batez beste % 18 murriztea, hondakinen sorrera gutxitzea eta gaikako bilketa handitzea.

Ekitaldia Barakaldo antzokian egin da, eta Elena Unzueta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko diputatuak; Unai Gangoiti Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko zuzendariak; Aitor Zulueta Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariak eta Carlos Oppe Nazioarteko GAPEko presidenteak hartu dute parte. Ikasleek Aktibatu+ programan parte hartu dutela egiaztatzen duen diploma jaso dute.

Bestalde, saria eman zaie edizio honetan parte hartu duten 19 zentroek eginiko lan guztien artean programaren epaimahaiak aukeratutako lanei. Hain zuzen ere, honela aitortu da energiari buruzko moduluan ikasleek eginiko lana:

| Zentroa                               | Saria / Diploma                             | Bisita                                                                                |
|---------------------------------------|---------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|
| IES AXULAR BHI                        | 1. saria +<br>diploma parte<br>hartzeagatik | Oiz mendiko parke eolikoa bisitatzea<br>(garraioa barne) (Iberdrolak emana)           |
| CPEIPS SAN JOSE DE<br>CALASANZ HLBHIP | 2. saria +<br>diploma parte<br>hartzeagatik | Armañongo parketxea bisitatzea<br>(garraioa barne) (Bizkaiko Foru<br>Aldundiak emana) |
| IES MUNGIA BHI                        | 3. saria +<br>diploma parte                 | Gorbeiako parketxea bisitatzea<br>(garraioa barne) (Bizkaiko Foru                     |

**ctb**bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

|                                     |                                              |                                                                                      |
|-------------------------------------|----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|
|                                     | hartzeagatik                                 | Aldundiak emana)                                                                     |
| FPB-BITURITXA-BARAKALDO             | Aipamen berezia + diploma parte hartzeagatik | Bisita gidatua Galindora (Bizkaia Ur Partzuergoak emana)                             |
| CPEIPS SAN JUAN BOSCO HLBHIP        | Aipamen berezia + diploma parte hartzeagatik | Bisita gidatua GARBIKERen instalazioetara (GARBIKERen emana)                         |
| CEIP GURUTZETA HLHI                 | Aipamen berezia + diploma parte hartzeagatik | Metro Bilbaoren instalazioak bisitatzea eta kabinan bidaiatzea (Metro Bilbaok emana) |
| CPEIPS ASTI-LEKU IKASTOLA HLBHIP    | Aipamen berezia + diploma parte hartzeagatik | Garapen iraunkorra zaintzen duen abeltegi bat bisitatzea. EROSKIrekin (EROSKI emana) |
| CEIP MAESTRA EMILIA ZUZA BRUN HLHI  | Eskola-aipamena + diploma parte hartzeagatik | Bisita gidatua Betelurira (Bizkaia Ur Partzuergoak emana)                            |
| CEIP PRUDENCIO CANTARRANA HLHI      | Diploma parte hartzeagatik                   | -                                                                                    |
| CPEIPS ZUBI-ZAHARRA IKASTOLA HLBHIP | Diploma parte hartzeagatik                   | -                                                                                    |
| IES MINAS BHI                       | Diploma parte hartzeagatik                   | -                                                                                    |
| IES KANTAURI BHI                    | Diploma parte hartzeagatik                   | -                                                                                    |

Hauk izan dira saridunak erosketa eta hondakinei buruzko moduluan:

|                              | Saria/Diploma | Bisita                                                                      |
|------------------------------|---------------|-----------------------------------------------------------------------------|
| CEIP LARRAÑAZUBI HLHI        | 1. saria      | Bisita gidatua Urdaibai Bird Center-era (Bizkaiko Foru Aldundiak emana)     |
| CPEIPS LAURO IKASTOLA HLBHIP | 2. saria      | Getxo Aquariuma bisitatzea (garraioa barne) (Bizkaiko Foru Aldundiak emana) |
| LARRABETZUKO ESKOLA          | 3. saria      | Bisita gidatua Deustuko sifoirara (Bizkaia Ur Partzuergoak emana)           |

**ctb**bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

|                    |                 |                                                                                         |
|--------------------|-----------------|-----------------------------------------------------------------------------------------|
| ARTATZA-ERROMO BHI | Aipamen berezia | Urkiolako parketxea bisitatzea (garraioa barne) (Bizkaiko Foru Aldundiak emana)         |
| TXOMIN ARESTI LHI  | Aipamen berezia | Bisita gidatua ARTIGAS-ARRAIZ zentrora (Bizkaiko Hondakinei buruzko Ingurumen Zentroa). |

### Aktibatu+ programa

Ikastetxeen kasuan, programak bi modulu ditu: energiari buruzkoa, zeinaren bidez energiaren kontsumoa murriztu nahi den erabilera arrazionalizatuz, eta, erosketa eta hondakinei buruzko modulua, zeinaren bidez hondakin horien sorrera gutxitu nahi den, haien kudeaketa hobetu nahi den, eta garapen iraunkorrarekin bat egiten duten erosteko irizpideak lortu nahi diren. Hain zuzen ere, ikasleek lortu dute paper eta organikoen hondakinak ia % 50 jaistea gela eta patio batzuetan. Horrez gainera, lortu dute gaikako bilketako edukiontzietan txarto utzitako hondakinen portzentajeak behera egitea, bereziki ontzietarako edukiontzian.

Aurtengo edizioan, Ezkerralde, Meatzalde eta Enkarterriko 19 zentroetatik 14k energiari buruzko moduluaren barruan hartu dute parte. Ikasleei hasierako auditoria bat egin dute, kontagailuak aztertuta; ondoren, 7 edo 8 gela aukeratu dituzte, eta egiaztatu dute zein argi geratzen diren piztuta hutsik daudenean. Datu horiek eta energiaren kudeaketari buruzko xehetasunen berri izateko zentroetako mantentze-lanen arduradunekin izandako elkarrizketak baliatuta, talde bakoitzak neurri zuzentzaileen pakete bat egin dute, eta haren berri eman diete irakasleei, irakasle ez diren langileei eta haien ikaskideei, ikasleek berek sortutako komunikazio-kanpainen bidez.

Neurri zuzentzaile horiek ezarri ondoren, taldeak bigarren auditoria egiten du, bigarren auditoria horretan lortutako datuak hasierako azterketan jasotakoekin alderatzeko. Edizio honetan, oro har, ikasleek proposatutako ekintzek sortu dute zentro guztietan energia modu eraginkorragoan erabiltzea, eta batez beste % 18 jaitsi da kontsumoa. Beste emaitza batzuen arabera, bost zentroetan 1,7 tona CO<sub>2</sub> aurreztu da eta urteko 87.000 kw beste bostetan; eta, batez beste, % 39 murriztu da argien erabilera beste sei zentroetan.



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

Erosketa eta hondakinei buruzko moduluan, bost zentrok hartu dute parte (Leioan, Getxon, Larrabetzun eta Loiu daude, eta programaren aurreko edizioan ere parte hartu zuten); taldeek antzeko prozedura erabili dute; bi auditoria egin dituzte eta oso emaitza positiboak lortu dituzte: hondakin gutxiago sortzea, gaikako bilketa areagotzea eta irizpide berriak ezartzea ikastetxeetan erosketak garapen iraunkorra kontuan hartuta egiteko. Hain zuzen ere, ikasleek lortu dute paper eta organikoen hondakinak ia % 50 jaistea gela eta patio batzuetan. Horrez gainera, lortu dute gaikako bilketako edukiontzietan txarto utzitako hondakinen portzentajeak behera egitea, bereziki ontzietarako edukiontzian.

Etheen kasuan, kanpaina oraindik ere irekita dago eta parte hartu nahi dutenek web berezi bat dute non eskuragarri dituzten gai hauek lantzeko tresna sinple eta eraginkor batzuk: erosketak eta hondakinak, ura, energia eta mugikortasuna. Programan parte hartzen duten udal eta mankomunitateen web orrien bidez edo [www.bizkaia21.eus](http://www.bizkaia21.eus) atariaren bidez sar daiteke plataformara, Aktibatu+ atalean kontsulta eginda.

Behin pertsona erregistratu ondoren, plataformak pertsona horren eguneroko azturak ebaluatzen ditu galdera sinple batzuen bidez. Ebaluazioa egin ondoren, aztura horiek ingurunean duten eragin negatiboa hobetzeko landu beharreko alderdiak nabarmentzen dira, eta informazio-eskuliburu praktiko batzuk eskaintzen dira hori lortzeko. Fase bakoitza amaitu ondoren, etheen ataleko parte-hartzaileek sari-zozketa batean sartzen dira; sariok, besteak beste: bizikletak, nekazaritza-etxeetako egonaldiak, liburu-sortak edo bisita gidatuak Bizkaiko leku enblematikoetara.

### **Aurreko lau faseen emaitzak**

Azken lau faseetan parte hartu duten 61 ikastetxeen lanari esker, batez beste % 17 aurreztu da energiaren urteko kontsumoan, eta 1,8 tonatan murriztu dituzte CO<sub>2</sub>-ko isuriak. Gainera, programa amaitu ondoren, ikastetxe gehienek gaikako bilketa hobetu dute, eta hondakin mota batzuen sorrera murriztu dute. Halaber, ikastetxe horiek erosketa iraunkorrerako irizpide batzuk aldatu dituzte sortutako hondakinen kopurua murrizteko; adibidez: bidezko merkataritzako produktu gehiago erosten dituzte, edo ontzi handiagotan saltzen direnak, ahalik eta ontzi gutxien erabiltzeko, eta berrerabil daitezkeen kizarak eta edalontziak erabiltzen dituzte.



**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa  
consorcio de transportes de bizkaia

Etxeetan, lortu da energiaren kontsumoa % 5,2 murriztea, eta urarena % 3,5. Bestalde, % 2,1 jaitsi da hondakinen sorrera, eta % 1,6 CO<sub>2</sub>-ko isuriak, mugikortasun-ohiturak aldatzearen ondorioz.